

## **GIPUZKOAKO ERRAUSKETAREN AURKAKO PLATAFORMEN KOORDINAKUNDEAREN PRENTSA KOMUNIKATUA**

Gipuzkoako herritarrek herrialdeko informazio medioen esku jasaten ari diren eraso informatiboaren aurrean, Gipuzkoako errausketaren aurkako plataformaren koordinakundeak honakoa adierazi nahi du:

1. Harrigarria eta lotsagarria suertatzen da Gipuzkoako hondakinen kudeaketan zaharo ez-eraginkorra den lana egin dutenak, zabortegiek gainezka, osasunari eta ingurugiroari kalte (usainak, lixibiatuak, hiriko izurriteak, etab.) egitea bezalako arazo larriei aurre egin ezin izan dutenak, xantxia antidemokratikoa ezarri nahi izatea San Markoseko gobernu batzordeko hautatutako kide berriei, eta ondorioz herritarren ordezkari legitimoak direnak.

2. San Markoseko zabortegia bere 35 urtetako historian zehar kudeaketa ezin okerragoa izan duelarik ezin da orain legalki itxi aurreko kudeatzaileek ez zutelako modu eraginkorrean bete egiteke zeuden prozedura administratiboak. Horregatik, orain bere itxiera aldarrikatzen dutenak dira esandako itxiera prozedura hori duela ia urtebete gauzatzea nahi ez zutenak izan.

3. Gipuzkoan orain arte sortu diren zabortegiak erraustegia bera bezain zitalak dira osasunean eta ingurugiroan sortzen dituzten kalteengatik. Horregatik, haien itxiera ahalik eta azkarren gauzatzea ezinbestekoa deritzogu.

4. Esandako zabortegi horiek errausketaren aldeko partiduek nahita kudeatuak izan dira Gipuzkoako herria (nagusiki errausketaren aurkako azaltzen dena) besarkatu dezan, beste biderik gabe, errausketa-metodoa.

5. Itxiera hori bideragarria izan dadin, eta ez itxurakoa, beharrezkoa da modu urgentean martxan jartzea, saiheste, gutxitze, bilketa selektibo, ber erabilpen, birziklatze, eta konpostatzeko beharrezko diren neurriak, erraustegia ezartzea baino merkeago eta azkarrago direnak. Zer egin dute mankomunitateetako, foru aldundiko eta partzuergoko arduradunak PIGRUGeko lehen puntuak, aurretik esandakoak, betetzeko?. Benetan uste al dute herrialde osorako %4 konpostatzearekin nahikoa izango dela?. 2008 urtera begira, zenbat diru bideratuko da benetan jasangarriak diren neurriak aurrera eramateko, eta zenbat erraustegia gauzatzeko?.

6. Duela 5 urte aldarrikatzen daramagun bezala, hondakinen kudeaketa eta tratamendu jasangarrian konpromiso serio eta benetakoa behar beharrezkoa da. Horretarako garatu genuen Gipuzkoako Hondakinak kudeatzeko plan gidatzailea. Bitartean, ez San Markoes ezta Sasieta, Lapatx edo Urteta itxi ahal izango dira San Markoseko gobernu batzordearen kontra jarritako xantxi maltzur eta ez demokratikoaren bitartez. Hain zuzen ere, xantxi hori bera izango da San Markoseko zabortegiaren itxiera beharrezkoa eta jasangarriaren gauzatzea ekidatuko duena.

Zubietan, 2007ko urriaren 2. Gipuzkoako Errausketaren aurkako plataformen koordinakundeak